

---

## INFORMAZIO-OHARRA

# Telekomunikazio-operadore batekin sinatutako Espainiako lehen PPA sinatu dute Iberdrolak eta Euskaltelek

- **Hornitutako energiaren % 100 berriztagarria izango da, eta Nuñez de Balboa proiektu fotovoltaikoaren bidez sortuko da (instalazio berria eraikiko dute).**

Energia salerosteko epe luzeko hitzarmen bat sinatu dute (PPA, *Power Purchase Agreement*) Iberdrolak eta Euskaltelek, aktibo berriztagarriak oinarri hartuta elektrizitatea hornitzeko.

Energia-enpresa batek telekomunikazio-operadore batekin sinatutako Espainiako lehen PPA da.

Hornitutako energiaren % 100 berriztagarria izango da; hain zuzen ere, Iberdrolak Usagren egingo duen (Badajoz-Extremadura) Nuñez de Balboa eguzki-instalazioan lortutakoa. 391 MW-eko potentzia izango du, eta Europako proiektu fotovoltaiko handiena izango da.

Kontratu honekin, urtean 7.740 tona CO<sub>2</sub> isurtzea saihestuko du Euskaltelek, eta, horrela, ekonomiaren karbonogabetze-estrategiari lagunduko dio.

Iberdrola Españaren kontseilari delegatu Ángeles Santamaríaren ustez, “PPAk aukera bikaina dira energia garbien —munduan energiaren etorkizuna bideratuko duten horien— garapenerako. Berriztagarriek erakutsi dute lehiakorrak direla eta gai direla energiaz hornitzeko arrazoizko prezio egonkorretan. Eta epe luzerako PPA kontratuak (oso garatuak merkatu anglosaxoietan) tresna oso erabilgarria bihurtzen ari dira kontsumo berde eta jasangarriarekin konprometituta dauden kontsumitzaile handiak elektrizitatez hornitzeko”.

Euskaltel Taldea osatzen duten hiru enpresek (Euskadiko Euskaltel, Galiziako R eta Asturiasko Telecable) ingurumenaren alorreko bikaintasunarekin duten konpromisoa nabarmendu du Euskaltel Taldeko kontseilari delegatu Francisco Artechek. “Pertsona guztientzat eta planetarentzat jasangarria izango den etorkizuna eraiki nahi dugu. Hitzarmen



---

## INFORMAZIO-OHARRA

hau beste pauso bat da ingurumena zaintzeko dugun konpromisoa betetzeko, eta gure enpresan ingurumen-jardunbide egokiak sustatzeko politikak zabaltzeko. Era berean, hitzarmen honen bidez, era koherentean eta arduratsuan erantzuten diogu Agenda 2030i, erreferentzia gisa hartuta Garapen Jasangarriko hamazazpi Helburuak eta Parisko Klimaren Akordioa”.

### Iberdrolaren PPAk Espainian, Estatu Batuetan eta Mexikon

PPAk (*Power Purchase Agreement*) energia salerosteko epe luzeko hitzarmenak dira. Haien bidez, energia-hornitzaileen inbertsioek egonkortasuna lortzen dute, eta kontsumitzaile handiek, berriz, energia berriztagarriak prezio lehiakorretan eta aurreikusteko modukoetan eskuratzen dituzte. Gainera, formula horrek laguntzen die garapen jasangarria lortzeko eta klima-aldaketaren aurka egiteko dituzten helburuak betetzen, kontratu horiei lotutako energiaren jatorri-bermeari esker.

Azken urteotan, hainbat PPA lortu ditu Iberdrolak, Espainian, Estatu Batuetan eta Mexikon. Zehazki, Estatu Batuetan, 800 MW baino gehiagotarako PPAk sinatu ditu hango multinazionalekin; besteak beste, hauekin: Amazonekin —Ipar Kaliforniako parke eoliko batekin lotuta—, Applerekin —Oregoneko zentral eoliko eta fotovoltaiko berrien eraikuntzarekin lotuta—, eta Nike eta Googlerekin —Oregoneko, Texasko eta Hego Dakotako parke eolikoekin lotuta—.

Mexikon, 600 MW-eko potentzia instalatua duten proiektu eoliko eta fotovoltaikoak eraikitzen ari da Iberdrola. Instalazio horietan sortutako energia epe luzeko kontratuekin (PPA) salduko zaie bezero industrial pribatuei, eta, energiaz gain, energia garbiaren bermeak ere emango zaizkie.

### Energia berriztagarriko munduko lehen enpresa

Energia berriztagarriko munduko lehen enpresa da Iberdrola: 29.400 MW baino gehiagoko potentzia instalatua du; haietatik 15.800 MW Espainian. Azken 18 urteotan, 95.000 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu energia berriztagarrietan, eta apustu hori egiten jarraituko du taldeak. Zehazki, 2022a bitartean, 32.000 milioi euro inbertitzeko asmoa du; haietatik % 37 energia berriztagarrien inguruko proiektuak garatzeko.

### Iberdrolari buruz



---

## INFORMAZIO-OHARRA

Energiaren arloan mundu mailako liderra da Iberdrola, eta, burtsako kapitalizazioari dagokionez, munduko elektrizitate-konpainia handienetako bat. Hainbat herrialdetan dago, eta 100 milioi pertsona inguru hornitzen ditu energiak, nagusiki Espainian, Erresuma Batuan (ScottishPower), Estatu Batuetan (AVANGRID), Brasilen (Neoenergia) eta Mexikon. 34.000 langile ditu, eta 110.000 milioi euro baino gehiagoko aktiboak. 2017an, 31.263 milioi euroko fakturazioa izan zuen, eta 2.804 milioi euroko irabazi garbia.

Trantsizio energetikoan liderra da, eta, bere bezeroei produktu eta zerbitzu aurreratuenak eskaintzeko, hainbat inbertsio egiten ditu sare adimendunetan, eskala handiko energia-metaketan eta eraldaketa digitalean. Energia-iturri garbien alde egin duen apustuagatik, CO<sub>2</sub> gutxien isurtzen duen enpresetako bat da, eta erreferentzia da nazioartean, klima-aldaketaren aurka eta planetaren jasangarritasunaren alde egiten ari den lanagatik. Nazioarteko hainbat jasangarritasun-adierazleren parte da (besteak beste, Dow Jones Sustainability Index eta FTSE 4Good), eta munduko elektrizitate-enpresa jasangarrietako bat.

### **Euskalteli buruz**

Euskaltel Euskadiko telekomunikazio-operadore liderra da, eta, Galiziako R-rekin eta Asturiasko Telecablerekin batera, Euskaltel Taldea osatzen dute, Espainiako estatuaren iparraldeko telekomunikazio-talde nagusia. Xede hau du: pertsonen komunikazio-beharrei modu integralean erantzutea eta enpresei ahalik eta produktibitate handiena izaten laguntzea, horretarako komunikatzeko eta informazioa kudeatzeko tresnak eskainiz eta, hartara, gure gizartearen garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuz. Euskadin, Galizian eta Asturiasen ondo errotuta dago, eta lurralde horiekiko konpromiso sendoari eusten dio. Merkatu horietan jarduten du, Euskaltel, R eta Telecable operadoreen bidez.

Euskaltel Taldeak 705 laguneko giza taldea du, eta 4.200 zeharkako lanpostu baino gehiago sortu ditu Euskadin, Galizian eta Asturiasen. Sei milioi pertsonako merkatuan egiten du lan, eta egunean 2,4 milioi zerbitzu ematen ditu. Nagusi da zuntz optikoan (banda zabala, telefonia eta ordainpeko telebista eta telekomunikazio-zerbitzu bateratuak); Euskadiko, Galiziako eta Asturiaseko WiFi sare zabalena du (436.000 konexio-puntu), 4Gko lizentzia propioa, eta bere sare propioa ari da hedatzen, LTE lizentziari esker.

Euskaltelek bat egin du Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), eta, beraz, Nazio Batuen Agenda 2030ekin. Hori dela eta, klima-aldaketaren aurka egiten ari den lanaren erakusgarri, Ingurumen-gidaplan bat zehaztu eta martxan jarri du. Hain zuzen, haren ildo estrategikoetako bat da erakundearen karbono-aztarna murriztea, eta, horretarako, besteak beste energia garbi berriztagarriak erabiltzeko konpromisoa hartua du.

